

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Balenziaga Osa

*Ondarroa,
Bizkaia
(1931-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Kale handin jaio zen 1931. urtean. Lau neba-arrebatatik gazteena izan zen. Ama Ondarroako saregina zen eta aita Berriatuan jaiotako baxurako patroia. Arrantza munduarekin lotutako familia izan arren, Juanitok beste bide bat hartu zuen. 17 urtera arte eskola eta partikular desberdinetan aritu zen lanean hasi arte. Herrigintzan asko aritu izan da: Aurrera kirol elkarteko presidentea izan zen eta Ondarroan abuztuaren 17an ospatzen den Arrantzale egunaren sortzailea ere bada, 1957an antolatu eta ospatu baitzuten lehen aldiz. Kulixka tabernan lan egin ostean, Sokoia taberna zabaldu zuen.

Zintak

OND-037

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-05-18
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

OND-038

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-05-18
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Jaiotzako bandera espainiarra estali zuen

- **Erref:** OND-037/004
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola nazionalen ibili zen 10 urtera arte. Andereñoak jo egin zuen Gabonetako jaiotzako bandera espainiarra estaltzearen, eta amak atera egin zuen eskolatik. Orduan eskola partikularretara hasi zen.

2. Lehenengo dendari eta gero tabernari

- **Erref:** OND-037/005
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Hamazazpi urterekin itsasorako gauzen denda batean hasi zen lanean. Soldadutzara joan zen. Kafetegi batean hamar urtean egin zuen lan eta hura bota zutenean Sokoa taberna sortu zuen berak.

3. Abuztuaren 17an Arrantzale Eguna

- **Erref:** OND-037/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Aurrera kirol klubeko presidentea zela, 1957an bururatu zitzaion udalari proposatzea abuztuaren 17a jai izendatzeko.</p>

Transkripzioa

<p>- Ta hori pasa zan. Bueno, baiñe hori baiño aurrerauaku zan nire asmaziñoia hillan hamazazpiku. Ixan nitxan “presidente del Club Deportivo Aurrera”; en el cuarenta y seis, en el cuarenta y seis. Bai, hotasei urteaz, “nacíe en el treinta y uno”;, hotasei urteaz eon nitxan presidente. Orduen, ba, pentsata bastante urrian euskal jaxak baeuazela ta Ondarrun lehena San Pedro egunien eitten zan jaxe, ta gero gitxi eitten ziela ta, ba, zoeze asma bihir zendun. Ta, ordun, ba, asma neban neuk, Club Deportivoko presidenti nitxanin, ayuntamienture espresati nahi gendule hillan hamazazpixe ipini Día del arrantzale, ta jaixe ixati, gaiñera. Ta ordun erun gendun proposamena ayuntamienture, ta retxaza ein eben / eiben/, karu zala ta. Eta karu zan ordun “doce mil seiscientos veinti tantos”; edo hoxe diruoi zan. Baiñe hain gauzaz eta ondo ipinitte geunkan jaixe, ostea be abisa ostan /abisastan/ esaten baietz, proposamena baietzin dala, ta eitteko. Ta ein gendun Día del arrantzale, eta hortixeik da Día del arrantzale.</p>
<p>- Ta hori be cuarenta y seisien?</p>
<p>- Bai. Ez, cuarenta y seisin ez. Txarto esan dotsut /esatzut/ cuarenta y seiseku, joder. Hori cincuenta y sieten zan. Lehenengoko Arrantzale Egune cincuenta y sieten.</p>

4. Ondarroako antzarak

- **Erref:** OND-037/007
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Abuztuaren 15ean edo 16an, marearen arabera, antzarak egoten ziren Ondarroan; mozorrotu egiten ziren lagunak egun horretan. Behin berak diseinatutako zakuzko soinekoekin.</p>

Transkripzioa

<p>- Cincuenta sieten aurretik, egoten zin antzarrak Ondarrun, hillan hamabostin ama birjiñin egunin be bai eta hillan hamaseixan be bai. Mari zelan euan: mari goixan baeuan, egun baten edo bestien, orduntxe eitten zin, arrantzale egunin. Guk arrantzale egunin eitten gendun disfrazata urten. Han da argazki bat, disfrazata, e… bueno, nahi dan beste dakaaz, baiñe etxin dakaaz, hamentxe dakaaz beste bat, polit batzuk... [...] Altza, altza zeu.</p>
<p>- Bai, Han, e...?</p>
<p>- Horretxen azpizan. "Vestido saco", ez za akordatzen? Zu ez.</p>
<p>- Ez.</p>
<p>- Ikusten dozu /ikustezu/, ni hamen, de frac.</p>
<p>- A, hau eskiñakoa zara zu?</p>
<p>- Bai.</p>
<p>- Elegante, bai. Eta hau da arrantzale egunekoa?</p>
<p>- Hori ez, hori da antzarran... antzarrak eitten zin /etxezin/ egunekue,

ez dakitt /eztaitx/ hillan hamaseiku edo hamabosteku. Hori neure kuadrilli da. Ta euan momento baten andrazkune, "vestido saco". Ta ordun nik pentsa neban, ba, zakozko erropak eittie, y como me, y como me apellido Valenciaga, y Valenciaga es un gran modisto de la vida Española, del mundo... Getaixan dakar museu ta. Ta, bueno, ba, hortixeik atatakuk zin horrek gure jantzixak eta horrek gauzok. Urtetzen gendun barko baten, barku be jantzitte, ta jaixe ixaten zan.</p>

5. Ondarroako "zezenak"

- **Erref:** OND-037/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:15:38. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Musika plazan jartzen zituzten egurrezko eskailerak eta zezenketa antzeztzen zuten.

6. Karroza subertiboak Arrantzale Egunean

- **Erref:** OND-037/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Arrantzale Egunean denak janzten ziren urdinik, azulik. Behin Bilbotik deitu zioten hurrengo egunean, karroza subertsiboak agertu zirelakoan bezperan.

7. Mutrikuko kondeak

- **Erref:** OND-037/010
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Hamabost urte zituela dantzako taldearekin joan zen Mutrikura Francoren emaztearen aurrean dantzatzera. Mutrikuko kondeen berri ematen du: Areilzaren emaztea zen berez Mutrikuko kondesa.

8. "Haurtxo danak alkarturik..." kanta

- **Erref:** OND-037/012
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Mutrikutik Ondarroarantzean, autobusean, dantza taldeko gaztetxoek kantatutakoa abesten du osorik. Ondarroako PNVn ikasitako abestia da. Guardia Zibilek "Kanta subertsiboak" abestu zituztela esan zieten, baina eurek ez zekiten zer ari ziren leporatzen.

9. Presidentearen zereginak

- **Erref:** OND-037/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Aisia

Laburpena:

Aurrera kirol klubeko presidente zela, hainbat zeregin zituen: diru-kontuak ikuskatu, jokalaria...

10. Gipuzkoako Federazioko kide

- **Erref:** OND-037/016
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:28:14. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Gipuzkoako Federazioan egon da beti Aurrera futbol-taldea. Gipuzkoako klubekin harreman handiagoa zuten.</p>

11. Arrera, kirol eta kultura taldea

- **Erref:** OND-037/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:31:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Aisia » Kirola » Arrauna
- Aisia
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mendi-taldea ere bazegoen Aurreran; kanpalekuak ere egiten zituzten. Horrez gain antzerkia, kultura edo arrauna ere bultzatzen zuten. 1926an, aita patroiz joan zen Portugaleteko estropadetara Ondarroako traineru batean.

12. Arraunzaletasuna Ondarroan

- **Erref:** OND-037/018
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:31:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

Gaztea zela, bazegoen arraunerako zaletasuna, baina sufrimendu handiko kirola zen, eta txarto ordainduta zegoen. Orain neskak ere badabiltza.

13. Berbena debekatu zuen Guardia zibilak

- **Erref:** OND-037/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:31:48. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Berbenak antolatzen zituen Aurrerak. Behin Maite Idirin gonbidatu zuten; Ondarroako batzuek ere kantatu zituzten euskal kantak, eta "Maria Cristina me quiere gobernar" kantatzeagatik guardia zibilek debekatu zuten jaialdia.

14. Berbenako atean guardia zibila

- **Erref:** OND-037/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Berbenak Zeledonion eta Frontoï plazan egiten ziren. Guardia zibilak atera joaten ziren berbenetan. Gerra aurretik Aurrezki Kutxak eraikitako etxea hartu zuten gerora kuarteltzat guardia zibilek.

15. Serenoak

- **Erref:** OND-037/021
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:36:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Gauez, edaten zutenak eta kantatzen zutenak eta, zaintzea zen serenoen eginkizuna. Frankistak ziren denak. Lehen ez zuten euskaraz egiten; orain aldatuta daude.

16. Eskolan Juan izan behar zen Jon

- **Erref:** OND-037/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Eskola nazionaletan gaztelerazko izena esan behar zen. Nolabaiteko haurtzaindegia ere egoten zen orduan. Elizaren gainean egoten ziren eskola eta udaletxea. Neskak Zeledonio Eskolan edo mojetan ibiltzen ziren.

17. Mojak zaharren egoitzen arduradun

- **Erref:** OND-037/023
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:40:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Zaharren egoitza lehen "Ospitxala" esaten zitzaion tokian zegoen. Oraingo egoitza berria egin zutenean, hango mojek hartu zuten horren ardura.

18. Eliza zen aukera bakarra

- **Erref:** OND-037/024
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:40:14. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gurasoek elizarako bidea irakatsi zioten. Hori zen zegoen bakarra. Dena zen tabu. Gerora, dena ahazten joan da.

19. Seiluak bildu behar ziren, txangoa irabazteko

- **Erref:** OND-037/025
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gutxi joan zen dotrinara. Batera egin zituen Jaunartze handia eta txikia. Gogo-jardunaldien aitzakian, astebete pasatzen zuten etxetik kanpo. Mezatarako joateagatik seiluak biltzen zituzten txangoa irabazteko.

20. Zapata-kaxan eskursioko bazkaria

- **Erref:** OND-037/026
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:42:43. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia

Laburpena:

Zapata-kaxan eramaten zuten bazkaria txangoetara: tortilla edo "arraina plapla eginda".

21. Astelehenetan igando mezari buruzko galdeketa

- **Erref:** OND-037/027
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:44:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Goizean mezatarako joan behar zen, eskola nazionalera joan baino lehen. Domekero joan behar ziren elizara, eta astelehenean galdetzen zieten igandeko elizkizunari buruz.

22. Ezkontzako deietan Gaizka esan zuen apaizak

- **Erref:** OND-037/028
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:44:47. **Bukatu:** 00:46:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gaizka Urrestiren ezkontzako deiak izan zirenean, berari Gaizka esateko esan zion apaizari, eta ez Salvador, bestela aldarera igoko zela bere burua aurkeztera. Lagunak joan ziren ea zer gertatzen zen ikustera, baina apaizak euskarazko izena esan zuen.

23. Otoitzak gazteleraz

- **Erref:** OND-037/029
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:46:33. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gazteleraz ikasi zituzten otoitzak elizan.

24. Elizak dioena ez da egia

- **Erref:** OND-037/030
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:48:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Beste erlijio eta sinesmen batzuk

Laburpena:

Jesukristoren ordezkoa egon zela eta haren historian sinisten du, gizon izan zen neurrian, ezer berezirik gabe. Orain Elizak esaten dituenak ez dira egiak.

25. Dena aitortu beharra

- **Erref:** OND-037/031
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:50:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Lehenago, aitortzaren bidez, herriko apaizek familia guztien berri zuten. Dena zen tabua. Aitortzan galdetzen zuten sexu-jarduerei buruz, baina ez zitzairen egia erantzuten. Dena aitortu behar zen.

26. Katolikoak bai, baina denak berdinak?

- **Erref:** OND-037/032
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:51:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Europar zehar asko ibilitakoa da. Lagunak elizkoiak ziren eta mezatan denak joan ziren jauna hartzera, bera izan ezik; izan ere, berak ez zuen jauna hartzen konfesatu gabe, baina, ordurako, lagunek zioten pulpitotik emanda zegoela barkamena guztientzat.

27. Apaizgaiak erakartzeko propaganda

- **Erref:** OND-037/033
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:51:53. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Egunkarian agertu da apaizgaiak erakartzeko propaganda; baina ez zaio zuzena iruditu. Antzina seminarista asko zegoen Saturraranen.

28. Saturrarango presoek eramatean zieten jana ondarrutarrek

- **Erref:** OND-037/034
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:52:40. **Bukatu:** 00:53:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Ondarroatik jende asko joaten zen Saturrarango kartzelako presoek jatekoa eramatera. Hantxe jaiotako neskatxo bi hazi ziren Ondarroan.</p>

29. Gutxitu dira frankistak

- **Erref:** OND-037/036
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:56:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Frankista nahikotxo egon da Ondarroan; sasoi batean ia 500 boto lortzen zituzten. Orain gutxiago dira; izan ere, haien ondorengo batzuk ezkerrekoak edo, dira.

30. Ondarroan euskaraz

- **Erref:** OND-037/037
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 00:57:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Beste inon ez bezala, Ondarroara heltzen diren guztiek berehala ikasten dute euskaraz. Beti egin izan dute euskaraz. Francoren garaian, eskola nazionalen zigortu egiten zituzten euskaraz egiteagatik.

31. Beristain, dantza-maisu

- **Erref:** OND-037/038
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:57:44. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Hainbeste frankista ezkondu ziren abertzaleekin. Lehengo abertzale guztiak ziren PNVkoak. Arreba eta bera ere sei urtetik ibili ziren EAJko dantza-taldean. Ondarroan dantza-maisu ona izan zuten, Beristain.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com